

( 5+4 / 5+4 )

**Jainkoak badu bihotz on eta urrikalmendu.**

Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari ;  
 Nere barneko guziek haren izenari.  
 Eskerrak eman, nere arima, Jainkoari,  
 Ez nehoiz ahantz zoin usu zaitzun urrikari.

Harek barkatzen, noiz baitzare zu makur ari,  
 Indar emaiten, ahul bazare, ala eri.  
 Libratzen zaitu, kasik baitzare hil erori,  
 Emaiten dautzu amodioa minen sari.

Ona da Jauna eta guzien urrikari,  
 Ez hasarrekor bainan bihotzen altxagarri.  
 Gaizkien arau ez zaiku Jauna nehoiz ari,  
 Ez eta ere hobenen arau lotzen guri.

Bi zero alde ezin neholaz jo elgarri:  
 Gure hobenak gutarik urrun hak ezarri.  
 Nola baitio aitak behatzen semeari,  
 Hala da Jauna, Jainkozaleen urrikari.